

PLE 17-MAR-23 (2/CP)

«IKUSIRIK Iruñeko Udalaren 2023ko aurrekontu luzatuaren aldaketari buruzko espedientean jasota dauden agiriak (Alkatetzak 2022-12-30eko ebazpenaren bidez onetsi zuen aldaketa hori, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat, Europako dirulaguntzetatik eratorritako diruzaintzako gerakin lotuarekin finantzaturako proiektuen gastuetarako beharrezkoa baitzen) eta indarreko aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- Aldaketa egitea 11/43200/227060 partidan (Turismoa. Kontratuak ikerketa eta lan teknikoetarako), 1.119.026,99 euroko zenbatekoarekin, PSTD Iruña SF365 proiekturako, diru-sarreraren 20/87010 partida (finantziazio lotuko gastuetarako Diruzaintzako Gerakina) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

2.- Aldaketa egitea, guztira 448.000,00 euroko zenbatekoarekin, Iruñeak ahal du: Merkatuak eta Hiriko Merkataritza Guneak babesteko Planerako, diru-sarreraren 20/87010 partida (finantziazio lotuko gastuetarako Diruzaintzako Gerakina) zenbateko berean gehituz finantzatuta, xehetasun hauekin bat:

Partida	Zenbatekoa
11/43110/619000 Merkataritza. Berrezarpen-inbertsioak Erabilera publikoko ondasunetan/azpiegituretan	408.000,00 euro
11/43110/629000 Beste ibilgetu materiala	40.000,00 euro

3.- Aldaketak kreditu-gehirri edo ezohiko kredituen bidez eginen dira, partidak indarrean den aurrekontuan kreditua esleitua duen ala ez.

4.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie indarreko aurrekontua betetzeko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean.

5.- Indarrean dagoen aurrekontuaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki hau jendaurrean jartzea hamabost egun naturaleko epean, erabakia Iruñeko Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aitzina. Hasieran batean onetsitako aldaketa baten kontra jendaurreko epean erreklamaziorik aurkezteak berekin ekarriko du Osoko Bilkurak berriaz egin behar izatea behin betiko onespena, indarra har dezaten, baina behin betiko berariazko onespene hori ez da beharrezkoa izanen erreklamaziorik jaso ez duten puntuek indarra har dezaten. Hori ez da aplikagarria Iruñeko Udalaren Aurrekontuan egindako kreditu-sorreren kasuan, non Osoko Bilkuraren erabaki honek buru ematen baitio tramitazioari